



2014ko irailaren 8tik 12ra, Artelekun
Galtzagorri Elkarteak
galtzagorri@galtzagorri.org
943471487

MARRAZ(i)OAK VI

ALDARE PROFANOAK

Ilustrazio tailerra

Gustavo Puerta eta Elena Odriozola

ZER

Aldare bat gertaera narratibo bat da. Bertara sinestunak narratiboki gerturatzen dira, beraien beldur, sufrimendu, desio eta esperantzak adieraztera. Aldareetan komunikatzeko behar bat dago, baina aldi berean modu estetikoan espresatzeko ahalmena ere badago.

Ikonotik erretaularaino, aldareak irudikatze modu desberdinak biltzen ditu, hauetako bakoitzak gauza edo gertaera zehatz bat kontatzen du, forma zehatz eta desberdin batean. Esparru honetan, irudikatutako figuren nolakotasun sinbolikoekin edota ezaugarriekin egin dezakegu lan. Bestela, pertsonaia horren bizitza eredugarria eta bere sufrimenduak kontatuz sekuentzia bat ere landu daiteke. Eta, nola ez, bizitza eredugarri horren atzean dauden bizio eta neurrigabekeriak ere zigortu daitezke.

Begirada desideologiko bat lantzean, kasu honetan ilustrazioa lantzerakoan, perspektiba desberdina eta harrigarria lor dezakegu, gure kultura tradizionalen planteamendu estetikoak geureganatuz.

Aldare baten eraikuntzak hainbat alor lantzeko aukera emango dio tailer honetan parte hartuko duenari: pertsonaia baten narratibotasun ez-sekuentziala, erregistro sinbolikoa, eta, besteak beste, estetika eta kolorea.

Tailer hau, jolaserako, hausnarketarako, sormen pertsonalerako eta elkarlanean sortzeko lekua izango da. Bertan tradiziozko hizkuntzarekin esperimentatzeko beharra aldarrikatuko dugu.

IRAKASLEAK

Elena Odriozola

Gustavo Puerta

METODOLOGIA

Tailerraren lehen saioetan, errepresentatibotasun grafikoaren hausnarketa eta imitazioetan zentratuko gara.

Eskapulario eta zingarriekin hasiko gara, sinboloaren gaian sartzen hasteko, eta gure ondare ikonografikoan murgilduko gara, baita haren zentzu psikologikoan ere.

Ondoren jatorri erlijiosoa duten eredu narratiboak landuko ditugu, hala nola, Errusiako estampa herrikoiak (lubki) eta *ex-votoak*, hauen estrukturak eta gaiak aztertu ondoren, hortik aurrera geure istorio propioak sortzeko.

Geure hausnarketarekin jarraituko dugu santoral bat sortuz, eta honetan gu geuk aukeratuko dugu pertsona, animalia edo gure mirespena jasoko duena.

Beharrezko santifikazioa egin ondoren bere bizitza eta mirariak narratzera pasako gara.

NORENTZAT

12 irudigilek hartuko dute parte.

Parte hartzeko baldintza orokorrak:

- Parte hartzaileek Euskal Herrikoak izan behar dute.
- Galtzagorri Elkarteko bazkide izatea baloratuko da.
- Euskadiko Ilustratzaileen Elkarteko bazkide izatea ere kontuan izango da.

ESKAINZA

Topaketa hauetan formazioa doan eskainiko zaie epai-mahaiak aukeratzen dituen 12 lagunei.

Beraz, beka bana izango dute tailer honen formazioa jaso eta bertan sortuko diren lanak bideratu eta bistaratzeko.

NOIZ ETA NON: 2014ko irailaren 8tik 12ra egun osoz, Artelekun

Arteleku

Santa Teresa (Alde zaharra)

Donostia

IZEN EMATEA:

- San Ignazioaren bizitzaren kapitulu bat marraztu beharko dute

Horrez gain, honako dokumentazioa igorri beharko dute:

- Curriculumuma
- NANaren kopia bat
- Posta elektronikoaren helbidea
- Telefono zenbakia

Dokumentazioaren hiruna kopia bidali beharko dute CD formatuan helbide honetara:

Galtzagorri Elkartera:

Zemoria kalea, 25, behea.

20013 Donostia

EPEAK

Eskaerak aurkezteko azken eguna: 2014ko ekainaren 30a izango da.

Aukeratutakoei 2014ko uztailaren 30an erantzungo zaie.

ANTOLATZAILEAK

Galtzagorri Elkartea

Gipuzkoako Foru Aldundia

Arteleku

INFORMAZIOA ETA ARGIBIDEAK

943 471 487

www.galtzagorri.org

galtzagorri@galtzagorri.org